



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 7a

129. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- 11-24/PES-00328. Galdera, Adimen Artifizialaren Zentrorako bisitari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00329. Galdera, Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00330. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00331. Galdera, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspeni eta epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00332. Galdera, Alaitz BHIIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00333. Galdera, Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitze obraren lizitazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00334. Galdera, Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00335. Galdera, 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00336. Galdera, Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00337. Galdera, familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haur-pobrezia aurkako borrokari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00338. Galdera, joko-enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00339. Galdera, behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00341. Galdera, Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoiei eta onura fiskalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00343. Galdera, Antzingo eskolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-24/PES-00344. Galdera, interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00345. Galdera, Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00346. Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaletik kanpo eginiko analisiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00347. Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00348. Galdera, Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00349. Galdera, Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00350. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00351. Galdera, Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00328. Galdera, Adimen Artifizialaren Zentrorako bisitari buruzkoa**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Adimen Artifizialaren Zentrorako bisitari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak bisita parlamentarioari buruz egin den informazio eskaeraren harira (11-24/PES00328) jakinarazten duena:

Galdera idatzian aipatzen duzun bisita, Parlamentuaren webgunean jasotakoaren arabera, urriaren 25ean izanen da.

IRIS Guneko langileak Nasertic enpresa publikoaren egoitzan daude lanean une honetan, Orkoien kalean, hain zuzen, eta Nair Center-en egungo egoitza Nafarroako Unibertsitate Publikoan dago.

Kontseilariaren eginkizunen artean ez dago zuk galderan adierazi duzuna eta, beraz, ez da horri buruzko adierazpenik eman.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00329. Galdera, Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Atarrabian San Andres paper-fabrikatiko usain txarrak nabaritzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00329 idatzizko galdera egin du egin du, Atarrabiako San Andrés paper fabrikatik ateratzen diren usain txarrei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Enbalajeetarako kartoia egiten duen Atarrabiako fabrikaren titularrak aurkeztu al du erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-baimen integratuaren aldaketaren xede den hondakin ur industrialen tratamendurako instalazioa abian jartzeko? Noiztik dago martxan arazketa-instalazio hori?

Enpresak hondakin ur industrialen tratamendurako instalazioa abian jartzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz uen 2024ko martxoaren 27an. Arazketako instalazioa 2023ko abuztutik dago martxan.

2. Departamentuan jaso al dute edo erregistratu al da bizilagunen kexarik Atarrabiako SOLIDUS SOLUTIONS SAN ANDRÉS SL enpresaren instalazioetatik heldu den kiratsa dela-eta? Zenbat? Zer egunetan?

Ingurumen Ikuskapeneko Zerbitzuak Atarrabiako Udalean jasotako bizilagunen kexen berri izan zuen 2024ko abuztuaren 6an. Zortzi kexa jaso ziren guztira 2024ko uztailaren 3an, 16an, 25ean, 30ean eta 31n eta abuztuaren 2an eta 3an. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere jaso zuen usain txarreatik kexa bat erregistro elektronikoen bidez 2024ko abuztuaren 27an. Bilera bat egin da Atarrabiako Udalarekin 2024ko irailean, non gai hori jorratu den.

Aztertzen ari da ea sasoiko kontua izaten ahal den; izan ere, usain horiek sarriagoak eta gogorragoak omen dira udan.

3. Departamentuak zer kontrol-mekanismo dauka instalazio horren ingurumen-baimen integratuan jasotakoa betearazteko eta, hartara, usain desatsegin horiek behin eta berriro gertatzea ekiditeko?

Ingurumen-baimen integratuan jasotako baldintzak betetzen direla bermatzeko eta usain txarrak egon daitezela saihesteko Departamentuak dituen mekanismoak dira usain horiei jarraipena egitea Foruzaingoaren bitartez, bai eta oflatometria dinamikoko analisiak egitea ere bat etorritik UNE-EN 13725 arauarekin. Horietan lortzen diren emaitzen arabera neurri zuzentzaileak aplikatzea planteatzen ahal da.

4. Departamentuak identifikatu al du usain horiek nondik heldu diren? Ingurumen-baimen integratuko hobekuntza tekniko erabilgarrien artean jasotzen ez diren teknikak erabiltzetik heldu al dira?

Usain txarren jatorria izaten ahal da instalazioko arazketa plantak noizean behin txarto funtzionatzeak, baina aztertzen ari da ea usain horiek sortzeko beste kausarik egoten ahal den, hala nola paper-orearen almidoia instalazioko beste zona batzuetan azido koipetsu lurrinkorretan degradatzea eta aurreko urteetan erabili den lehengaiaren kalitateaz bestelako bat duen lehengairen bat erabiltzea.

Hasiera batean, ez da uste usain txar horien jatorria ingurumen-baimen bateratuko teknika erabilgarri onenen artean jasota ez dauden teknikoak erabiltzea izaten ahal denik. Hondakin uren araztegia izapidetzen ari zenean, titularrak justifikatu zuen betetzen zuela Batzordearen 2014ko irailaren 26ko Betearazpen Erabakiaren 7. teknika erabilgarri onenaren II. apartatua (hondakin uren tratamenduarekin eta lohien manipulazioarekin lotutako usainei aplikatzekoa, hondakin uren eta lohien baldintza anaerobioak saihesteko). Betearazpen Erabaki horren bidez oreka, papera eta kartoia ekoizteko teknika erabilgarri onenei (TEO) buruzko ondorioak ezartzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren industria isuriei buruzko 2010/75/EB Zuzentarauarekin bat etorritik. Departamentuko teknikariek Ikuskapeneko 2024ko Programaren baitan 2024ko martxoaren

22an ofizioz egindako ikuskapeneko bisitan ez zen ikusi ingurumen baimen integratua jasotako teknikez bestelakorik.

5. Departamentuko teknikariak bisitan joanen al dira instalazioetara, egiaztatzeke ea bizilagunen keak egiazkoak diren eta usain horien jatorria zehazteko? Noiz egingen da ikuskapen hori?

2024ko abuztuaren 8an, Ingurumen Ikuskapeneko Zerbitzuko teknikari batzuek bisita egin zuten instalazioaren inguruan egiaztatzeke usain txarrik zegoen. Egindako bisitan ez zen hauteman industria mota horretan paper oreari lotutako ohiko usainez bestelakorik. Usainen intentsitatea txikia zen eta instalazio ondoko ibaiaren zonan baino ez zen kontzentratzen. Zerbitzuko langileek txosten bat idazti dute eta Atarrabiako Udalarari bidali zaio. Bisita horren harira titularrari eskatu zaio kontrol neurriak areagotu ditzala eta olfatometria dinamiko bat egin dezala erreaktore biologiko erreare-

kin, eragina ikusteko. Hori guztia usainak kudeatzeko duen planaren barruan.

Halaber, Nafarroako Foruzaingoarekin adostu da jarraipen etengabea egingen dela hilabetez zehar klimatologiari edota instalazioa eteteko eta funtzionatzeko aldiei lotzen ahal zaien patroia bat aurkitzeko xedez.

Aldez aurretik ikuskapen bisita bat egin zen instalaziora 2024ko martxoaren 22an, jarduera industrialak ikuskatzeko 2024. urteko programaren barruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00330. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruz (11-24/PES-00330). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuak eskatuta, 2023ko abenduan txosten bat eman zuen Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren kontuei buruz. Txosten horretan jotzen dute urteko kontuek ez dutela islatzen ondarearen benetako irudia, eta, horrez gain, zenbait gomen-dio ematen dizkiote erakundeari, hala nola kon-

teiluaren lege konfigurazioa alda dezatela, kontabilitateko gertakari guztiak egokiro erregistra ditzatela, sinadura mankomunatu ezar dezatela ordainketak egiteko, erakundean dauden entitateei kuota kobratu ditzatela exijitzea eta kreditu lerroak negozioa ditzatela bankuekin likideziaren arazoak konpondu ahal izateko.

Ikusita elkarte pribatuko oinarria duen zuzenbide publikoko erakundearen konfigurazio juridikoa duela, espero behar da duen autonomiaren barruan organismo horrek egokitzat jotzen dituen erabakiak hartzea.

Edozelan ere, funts publikoak erabiltzearen harira, Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2023ko ekitaldian ordaindutako eta egikaritu gabeko dirulaguntzaren zatia itzultzeko kasuko espediente izapidetu zuen.

Gazteekin komunikatzeari dagokionez, Nafarroako Gazteriaren Institutuak hainbat bideren bitartez etenik gabe komunikatzeko kanal bat du, bide formalen nahiz informalen bidez elkarriketan aritzeko, eta Nafarroako Gazteriaren Kontseilu operatiborik ez dagoenez erakunde mailako komunikazioa bideratzen duenik, mantendu egingen da Gazteriaren 11/2011 Foru Legeak Nafarroako gazteriaren politika integralaren inguruko kontsulta eta

aholkularitzarako organo gisa ezartzen duenaren bitartez, hau da, Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluaren bitartez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

---

## **11-24/PES-00331. Galdera, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspenei eta epeei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Aramburu Bergua andreak Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zerbitzuaren finantzaketari buruzko aurreikuspenei eta epeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Aramburu Bergua andreak 11-24/PES-00331 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Une honetan mendekotasuna dutenen dependentzia prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzua emateko kontratua- ren lizitazioa prestatzen ari da. Kontratu hori

esparru akordio baten modalitatean lizitatuko da, orain arte bezala, eta zerbitzuaren hornitzaile posibleak gizarte erakundeak, enpresa erakunde- ak eta toki administrazioak izaten ahalko dira (egungo lizitazioko egoitza eta eguneko zentroet- atik harago), zerbitzua Foru Komunitateko herri guztietara hurbildu ahal izateko. Une honetan, kontratu horren kostua kalkulatu ari dira, eta 2024aren amaieran edo 2025aren hasieran lizita- ziora ateratzea aurreikusten da.

Bestalde, desgaitasuna duten pertsonen auto- nomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak ematen ari dira, desgaitasuna duten pertsonentzako pro- gramen dirulaguntzen deialdiaren bidez. Une honetan, partida horien azken zenbatekoa zehaz- tuko duten aurrekontuak egiten ari dira.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlametu- ko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatuta- koa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria. María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00332. Galdera, Alaitz BHIIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Alaitz BHIIn batxilergo-lerro bat kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00332 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hauexek dira eskatutako datuak:

- 2024/2025 ikasturterako onartzeko prozesuaren ohiko fasean zehar 30 eskaera aurkeztu ziren

Barañaingo Alaiz BHIIn zientzien modalitatean eta giza eta gizarte zientzien modalitatean batxilergoko lehen ikasmaila egiteko. 30 eskaera horietatik bik uko egin zioten prozesuan parte hartzen jarraitzeari.

- Alaiz BHIko ikasleek ez dute onartzeko prozesuan parte hartzen plaza baitute automatikoki.

- Aurkeztu ziren eta prozesuan jarraitu zuten 28 eskaeretatik 21 Iruñeko Jaso Ikastolatik etorttako ikasleek ziren.

- 28 eskaerak onartuak izan ziren hautatutako lehenengo aukeran, hau da, Barañaingo Alaiz BHIIn.

- Azkenean 27 pertsona matrikulatu ziren eta besteak Iruñeko Nekazaritza eta Basogintzako IBan egin zuen matrikula.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00333. Galdera, Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeo obraren lizitazioari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Mugairin Elizondo Lanbide Eskola berria eraikitzeo obraren lizitazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00333 idatzizko galderari

dagokionez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren abenduaren 29rako 203E/2023 Ebazpen bidez, onetsi egin zen Oronozen (Baztan) lanbide heziketako zentro berri bat eraikitzeo obrak kontratatzeo espediente 23.886.214,65 euroko gehieneko zenbatekoagatik.

2024ko urtarrilaren 19an obrak kontratatzeo iragarkia argitaratu zen Kontratazio Atarian, eta eskaintzak aurkezten ahal ziren martxoaren 18ra arte.

Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren martxoaren 26ko 31E/2023 Ebazpen bidez, bertan behera utzi zen kontratazio espediente, ez baitzen eskaintzarik aurkeztu.

Aurrez azaldutakoa ikusita, Hezkuntza Departamentua zenbait alternatiba ari da baloratzen Oronozen lanbide heziketako zentro berri bat lizitatzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

## **11-24/PES-00334. Galdera, Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Etxabakoizko Nuestra Señora de Roncesvalles haur-eskolan 2024-2025 ikasturterako izandako matrikulazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00334 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2024ko irailaren 9an, Etxabakoitzeko Nuestra Señora de Roncesvalles haur eskolak 53 ikasle ditu matrikulatuta 2024/2025 ikasturterako gaztelaniazko modalitatean.

Hona hemen adinen arabeko banaketa:

- 0 urte: 13 neska-mutil.
- Urte 1: 24 neska-mutil.
- 2 urte: 16 neska-mutil.

Honako hauek dira bizi diren udalerrriak matrikulan jaso diren datuen arabera:

- Barañain: 2 neska-mutil.
- Burlata: neska bat
- Cordovilla (Galar): mutil bat
- Iruña: 43 neska-mutil.
- Zizur Nagusia: 6 neska-mutil.

Idatzi den egunean, ditugun datuen arabera lau neska-mutil daude bi urteko gelaren itxaronzerrendan.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui



## 11-24/PES-00335. Galdera, 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak 2024-2025 ikasturtetik aurrera Ezpeleta Jauregia erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00335 galdera idatziari dagokio-

nez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak Hezitzaile Eskola Ila lekuz aldatu zuen aurtengo udan, Ezpeleta jauregitik Victor Pradera IPa 2023ko ekainera arte egon zen eraikinera, Iruñeko Zaragoza etorbidera, alegia.

Gaur egun, jauregi horretan Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Nafarroako Eskola Kontseilua daude.

Hezitzaile Eskola Ilak libre utzi duen espazioa dela-eta, Hezkuntza Departamentua beronek dituen espazio premiak aztertzen ari da eta espazio hori laster beteko du.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00336. Galdera, Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Aibarko haur-eskolarako aurrematrikulazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00336 galdera idatziari

dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak ez du Oibaren Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan plaza izateko interesa izaten ahal duten ikasleei buruzko datuen erregistrorik.

Logikoki, familia interesdunek matrikulari lotuta hartu duten behin betiko erabakia zein den ere ez daki.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-24/PES-00337. Galdera, familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haurpobreziaren aurkako borrokari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak familiei lana eta familia bateragarri egitearekin laguntzeko neurriei eta haurpobreziaren aurkako borrokari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00337 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Joan den abuztuaren 9an, Eskubide Sozialen Estatu Idazkaritzak ebazpen bat onetsi zuen; horren bidez argitaratu da Gizarte Zerbitzuen eta Mendekotasuna dutenen Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia, zeinaren bidez finkatzen baitira autonomia-erkidegoen (EAE eta Nafarroako Foru Komunitatea salbu) eta Ceuta eta Melilla hirien arteko lurralde-banaketarako irizpideak eta suertaturiko zenbatekoak, Familia Babesteko eta Haurren Pobrezia Artatzeko Programa finantzatzera 2024an bideratutako kredituarenak (2024ko abuztuaren 22ko NAO-n argitaratua).

Galdera laguntza horiei buruzkoa bada, zeinak Nafarroako Foru Komunitateak ez dituen jaso behar, zehaztu behar da ezen, nahiz eta EAE eta Nafarroako Foru Komunitatea ez diren sartzen banaketa horretan, kontzeptu horiek kontuan hartzen direla hitzarmena kalkulatzeko, eta, beraz, Estatuarengandiko diru-sarrera gisa zenbatzen direla hitzarmena negoziatzean.

Egiaz, Nafarroako Foru Komunitateak badauzka ekintza espezifikokoak, ebazpen horretan finantzaketaren hartzaile gisa ageri diren programekin lerrotatuak. Zehazki, hauek:

A) "Familia Babesteko eta Haurren Pobrezia Artatzeko Programa.

A.1) Familia Babestea eta Haurren Pobrezia Artatzea.

Kreditu hori bideratuko da esku-hartze sozialeko proiektuak finantzatzera eta diruzko eta/edo gauzazko prestazioetara, zeinen xedea izan den beren kargura adingabeak dituzten eta gabetia material larria duten edo pobrezia- eta eskusio-arriskuan dauden familien gizarte- eta lan-egoera hobetzea, arreta berezia jarrita batez besteko tasa baino handiagoa dutenetan, hala nola guraso bakarreko familietan, edo babes-behar bereziak dituztetan, hala nola landa-eremuko familietan.

Kreditu-banaketak eragiten dien autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek eta tokiko udalbatzek eta/edo tokiko erakunde publikoek –Gizarte Zerbitzuen Sistema Publikoaren baitan– sustatu beharreko proiektuak hautatzeko, akordioak adostuko dira horien eta Eskubide Sozialetako, Kontsumoko eta Agenda 2030eko Ministerioaren artean. Betiere, proiektu-tipologia hauetakoak izanzen dira:

1. Familien gizarte-zaugarritasuneko egoerak arintzera eta hobetzera bideratutako proiektuak, zeinek estaliko dituzten elikadurarekin, higieinarekin, arroparekin eta abarrekin lotutako oinarritzko beharrak, eta hainbat zerbitzu lortzen lagunduko duten, hala nola osasunekoak (fisikoa eta mentala), hezkuntzakoak (eskola-materiala, jangela-laguntzak), etxebizitzakoak (alokairua eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak, hornidurak eta abar hobetzea) eta enpleguak, bai eta familiei zuzendutako gizarte-laguntza eta -lana ere".

Nafarroak estaldura eta intentsitate handiko prestazioak ditu esparru horretan: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak kudeatutakoak, errenta bermatua, larrialdi-laguntzak, aparteko laguntzak; Hezkuntza Departamentuaren eskola-bekak, bai eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren etxebizitza-alorreko laguntza-programak ere –une honetan, beren kargura adingabeak dituzten familiek jasotzen dituzte laguntza horien % 78–. Era berean, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak familien akonpainamendurakoak diren oinarritzko gizarte-zerbitzuen programak finantzatzen ditu.

2. Familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko proiektuak, gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan dauden eta beren kargura adingabeak dituzten

familiei zuzenduak, honako laguntza hauekin, besteak beste: haur-eskoletako gastuak, haurren arreta noizean behingo kontziliazio-beharrak asetzeko, hezkuntza-zerbitzu normalizatuen osagarri diren laguntza-zerbitzuak eta hurrek eta nerabeek arreta eta garapen egokiak izateko duten eskubidea bermatzen duten beste laguntza batzuk.

Arlo horretan ere laguntza bereziak ditu Nafarroak, Hautzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzak kudeatutakoak: kontziliazio-laguntzak eta “Kanpoko ikastetxeetako haurren kuotak” direlakoak (beste departamentu batzuek estaltzen ez dituzten gastuetarako erabiltzen dira, eta zaugarritasun handiko egoeran dauden familiei ematen zaizkie, haur horiek beren ohiko ingurunean egon ahal izan daitezen).

3. Familiaren alorreko esku-hartzerako eta laguntzarako zerbitzuak; besteak beste, Gizarte Zerbitzuen eta Mendekotasuna dutenen Autonomiarako eta Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluak 2013ko urtarrilaren 16an onetsitako Gizarte Zerbitzuen Erreferentziatzko Katalogoaren 1.3 atalean zehaztutakoak (gizarte- eta familia-esparruko esku-hartzea eta orientabidea, familia-bitartekotza, familia elkartzeko guneak eta adingabeei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-arreta).

Nafarroak abian ditu, berariazko partidekin, familien alorreko orientabideko eta esku-hartzeko zerbitzuak (azken urtean estaldura zabaldu egin da), familia elkartzeko guneak (hori ere berriki zabaldu da) eta prebentzio-programa espezifikokoak, hala nola nerabeen hezkuntzarako programa eta gurasoekiko indarkeriaren programa.

A2) Programa espezifikoa, eskola-oporretan hurrek eta nerabeek elikadura, aisialdi eta kulturarako duten oinarritzko eskubidea bai eta familia eta lana bateragarri egitea bermatzekoa.

Mota hauetako proiektuak finantzatzen ahalko dira:

– Oinarritzko beharrak asetzera bideratutako proiektuak; esate baterako, elikadura osasungarri, orekatu eta norberaren adinerako egokia.

– Aisialdi, kultura eta hezkuntzako jarduerak sustatzeko proiektuak.

– Beren kargura seme-alabak dituzten eta gizarte-zaugarritasuneko egoeran dauden familiei familia eta lana bateragarri egiten laguntzen dieten proiektuak.

Puntu horretan, esan behar da Hautzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzak kontziliazio-programa inklusiboak finantzatzen dizkiela toki-entitateei, lurralde-kontseiluaren erabakian jasota dagoen eran.

B) Oinarritzko laguntzako gizarte-zerbitzuetako hurrei eta nerabeei laguntzeko taldeak sendotzeko programak.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak finantzatzen ditu programa horiek, eta, hain zuzen ere, bere esku-hartzea areagotu du, sorturik eskualdeetako gizarte-zerbitzuen zentroak eta haietatik esku hartzen duten hurrei laguntzeko taldeak

Laburbilduz, Nafarroako Foru Komunitateak abian ditu hainbat zerbitzu eta programa, zeinek, banaketa-programa orokorraren bidez finantzatuak ez badira ere, Estatuarengandik finantzaketa jasotzen baitute hitzarmenaren bidez, eta funts berekiekin nabarmen sendotuta daude.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 16an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

**11-24/PES-00338. Galdera, joko-enpresei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Arantzazu Izurdiaga Osinaga andreak joko-enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00338). Hona galdera eta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1. Nafarroako Joko eta Apustuen Erregistroan zenbat joko-enpresa daude inskribatuta jokoak edo apustuak antolatzeko eta ustiatzeko gaitzen duten tituluarekin?

- Joko makinak operatzen dituzten enpresak: 97
- Apustuak antolatzen eta ustiatzen dituzten enpresak: 4
- Joko eta bingo beste modalitate batzuetako enpresak: 3

Joko makinak operatzen dituzten enpresentzako baimenak izaera mugagabea du, baita bingoak ustiatzeko baimenek ere.

Apustuak ustiatzeko baimenek hamar urteko indarraldia dute, eta iraupen bereko aldiatarako berritzen ahal dira berritu behar diren unean indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen betekizunak betetzen badira.

2. Azken bost urteotan, zer enpresa fisikok edo juridikok eskatu dute gaikuntza-tituluak berritzea, iraungitzea edo aldatzea?

3. Zer zentzutan ebatzi da eskatutako gaikuntza-tituluak berritzeko, iraungitzeko edo aldatzeko eskaera bakoitza?

a. Berritzea

2024. urtea

Gestión de Apuestas de Navarra SL enpresak ustiatzeko baimenaren indarraldia luzatzeko eskatu zuen. Ebazpen eman zen, non deklaratu baitzen emandako baimenak indarra izanen duela. Jokoari buruzko abenduaren 14ko 1995 Foru Legean jasotako xedapenak garatzeko ematen den araua indarrean sartu artean.

b. Iraungitzea

2020. urtea

Joko makinak operatzen dituen Recreativos Plaza del Castillo SL enpresak erregistroko izen ematea indargabetzeko eskatu zuen. Enpresak Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroan zuen izen ematea indargabetu zen.

2021. urtea

Joko makinak operatzen dituzten Miguel Ángel González Benito eta Francisco Javier Gallardo Martínez enpresek erregistroko izen ematea indargabetzeko eskatu zuten. Enpresek Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroan zituzten izen emateak indargabetu ziren.

2022. urtea

Joko makinak operatzen dituzten Navazar Recreativos SLU eta Joaquín Ochoa Narvaiz enpresek erregistroko izen ematea indargabetzeko eskatu zuten. Enpresek Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroan zituzten izen emateak indargabetu ziren.

2023. urtea

Joko makinak operatzen dituzten Adrisa Sociedad Recreativa SL, Recreativos Txan-Pon SL, Luckia Navarra SL eta Mario Domingo Redín Arbeloa enpresek erregistroko izen ematea indargabetzeko eskatu zuten. Enpresek Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroan zituzten izen emateak indargabetu ziren.

2024. urtea

Joko makinak operatzen dituen Recreativos Sacep SL enpresak erregistroko izen ematea indargabetzeko eskatu zuen. Enpresak Nafarroako Jokoen eta Apustuen Erregistroan zuen izen ematea indargabetu zen.

c. Aldatzea

2022. urtea

Gobinta SA enpresak bingo ustiapeneko baimena eskualdatzeko eskatu zuen. Sanvier SA zen

titularra. Azkenean bingo aretoa eskualdatzeko baimena eman zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.<sup>a</sup> Amparo López Antelo

## 11-24/PES-00339. Galdera, behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak behar bezala frogaturiko hiru komunikazio-ahaleginak betetzen direla bermatzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00339 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau: "Osasun Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 26ko 21/2010 Foru Dekretuaren 10. artikulua 4. apartatuaren arabera, "bertaratzeko eguna jakinarazteko hiru saio, behar bezala egiaztatzen direnak" egin behar dira. Zer neurri hartzen du Osasun Departamentuak hori betetzen dela bermatzeko?" Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Pazientearekin harremanetan egoteko zenbait kanal erabiltzen dira, hala nola gutuna, SMSa, telefono deia eta posta elektronikoa, pazienteak hori erregistratu badu. Horrez gainera, etorkizuneko hitzorduak Osasun Karpeta Pertsonalean ditu.

Pazienteak dituen eginkizunen artean dago datuak eguneratuta izatea (helbidea eta telefonoa). Hori arautu zuen 1392/2012 Ebazpenak (irailaren 21ekoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako "Nafarroako Itxaron-zerrendetako Erien Erregistro Orokorra" kudeatzeko jarraibideak onesten dituen).

Erabiltzaileen betebeharreri buruzko 8. puntuan hauxe zehazten da:

"Aurreikusitako gehieneko denboraren bermea eraginkorra izan dadin, erregistroan inskribatutako erabiltzaileak honako hauetara behartuta daude

a) Telefonoari, helbideari edo posta elektronikoki buruzko datuak eguneratuta izatera, deien ondorioetarako."

Eta betebeharreri hori bete dadila errazteko, herritarren eskura jartzen dira informazio hori edozein unetan eguneratu ahal izateko mekanismoak. Osasun Karpeta Pertsonaletik egiten ahal da eguneraketa, non harremanetarako datuak egiaztatzen eta aldatzen ahal diren, behar izanez gero (helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa), bai eta arreta emateko zentroetako harrera puntuetako edozeinetan ere, nola ospitaletan hala kanpo kontsultetan eta osasun etxe eta kontsultategi guztietako administrazio unitateetan.

Beraz, jotzen dugu hitzorduak emateko gutunak eta SMSak behar bezala iristen direla.

Pazienteari hitzordua ematen zaionean ulertzen dugu Harreratik epe barruan eta egokiro komunikatzen dela, jotzen baitugu ditugun datuak zuzenak direla.

Komunikatzeko hiru saioak hainbat kasutan egin behar izaten dira.

Kasuetako bat da Correosek gutunak itzultzea helbidea ez delako zuzena. Kasu horretan, saioa egiten da pazientearekin telefonoz harremanetan jartzeko datuak eguneratzeko, eta egun desberdinetan gutxienez ere hiru dei egiten zaizkio ordu desberdinetan (goizez/arratsalde). Baliteke hitzordua igaro izana eta "huts egin duelako" itxaron-zerrendatik atera izana, edo, aitzitik, hitzordua data itzultitako gutuna jaso ondorengoa izatea, eta telefonoz harremanetan jartzen saiatzea hitzordura joan dela baieztatze eta etxeko datuak eguneratzeko.

Hitzordua telefono bidez emateko kasuan, aurkitu ezin diren prozedura aplikatzen da; hau da, gutxienez hiru dei egiten dira ordu tarte desberdinetan (goizez/arratsalde) egun desberdinetan. Aurkitu ezean, hartu-agiria duen gutun ziurtatua bidaltzen zaio pazienteari, eta adierazten zaio Harrerarekin harremanetan jar dadila gutuna jaso eta hamar eguneko epean, datuak eguneratzeko. Adierazitako epean harremanetan jartzen ez badira, erregistroko itxarote zerrendatik ateratzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 17an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00341. Galdera, Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoei eta onura fiskalei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Vianako Mondelez enpresarentzako laguntza ekonomikoei eta onura fiskalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Nafarroa andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuan 202404726 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko uztailaren 23an (11-24/PES-341 galdera), askotariko informazioa eskatzeko Vianako Mondelez enpresak aplikatutako onura fiskalei, dirulaguntzei eta laguntzei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Vianako Mondelez enpresak aplikatutako lagun-

tzek, dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, eskaera egin duen parlamentariak hain zuzen ere laguntzen nahiz dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi dituela josten da, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapena da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituen:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzat hartuko.



Hori dela-eta, ohartarazten da erantzun hau Vianako Mondelez entitateak aplikatutako onura fiskalak direla-eta eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatutako zergadunak izaten ahal dituen salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik entitate horrek jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikulua hori: Bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuek edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu.

Hori dela-eta, lege araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabiltzen ahal direla, hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabiltzen ahalko direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi

izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege-gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Vianako Mondelez enpresak azken hamar urteetan aplikatutako onura fiskalei buruzko informazio eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 24an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

#### **Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Vianako Mondelez enpresak jasotako dirulaguntzei eta onura fiskalei buruz (11-24/PES-00341). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Mondelez enpresak (IFK: B-310181049 honako laguntza hauek jaso ditu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentutik azken hamar urteetan:

Urtea	Testua	Zenbatekoa	Data
2023	Energia gailuzkoak	108.594,93	04.01.2023

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

**11-24/PES-00343. Galdera, Antzingo eskolari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Antzingo eskolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-24-PES-00343 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Lokiz HLHIPko ikasleei buruz galdera idatzian eskatu diren datuak taula honetan daude jasota:

Etapa	Ikasmaila	Hizkuntza eredu	Herria	Posta kodea
HH2	3 urte	D	Murieta	31280
HH2	3 urte	D	Murieta	31280
HH2	3 urte	D	Murieta	31280
HH2	3 urte	D	Otiñano (Torralba del Río)	31219
HH2	3 urte	D	Otiñano (Torralba del Río)	31219
HH2	4 urte	D	Legaria	31281
HH2	4 urte	D	Antzin	31281
HH2	4 urte	D	Antzin	31281
HH2	5 urte	D	Mirafuentes	31219
HH2	5 urte	D	Antzin	31281
HH2	5 urte	D	Murieta	31280
HH2	5 urte	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 1	D	Ollogoien (Metauten)	31241
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 1	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 1	D	Piedramillera	31219
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 2	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 2	D	Esprontzeda	31228
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 2	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 2	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 2	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 3	D	Mirafuentes	31219
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Mirafuentes	31219
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Desoio	31229
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	A	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 4	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 5	D	Murieta	31280
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 5	D	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 5	D	Otiñano (Torralba del Río)	31219
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 5	A	Antzin	31281
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 6	D	Mirafuentes	31219
LH LOMLOE	Lehen Hezkuntza 6	A	Legaria	31281

Hezkuntza Departamentuak aurreikusten du Antzineko ikastetxe publiko berria 2026/2027 ikasturterako irekiko duela.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi



## 11-24/PES-00344. Galdera, interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak interkontsulta baten ondotiko hitzordu presentzialari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00344 informazio eskaera egin du honako hau jakiteko: "Itxaron-zerrendak direla-eta, zer protokolori jarraitu behar zaio espezialista batekin hitzordu presentzial bat izateko eskabideen kasuan (oinarrizko osasunlaguntzatik egindakoak), espezialista horrekin aurretiaz zerbitzu arteko kontsulta egin ondoren?". Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Oinarrizko Osasun Laguntzatik zerbitzu arteko kontsulta ez presentziala egiten bazaio ospitaleko arreta zerbitzu bati, kontsultaren xede izan den

zerbitzuak berori baloratu ostean, zerbitzu horrek erabakitzen du zerbitzu arteko kontsulta ez presentzialari zer erantzun eman, kontuan hartuta informazio klinikoa eta bidali duen profesionalak atxikitako probak. Hauek dira erantzun posibleak:

- Itxaron-zerrendan sartzea zerbitzuak hitzordu presentziala emateko kanpo kontsultetan.

- Gomendioak ematen dira tratamenduari eta beste balorazio bat egin aurreko diagnostikoko prozedurei lotuta.

Zerbitzu arteko kontsulta ez presentzialak deribazioa egitea baterako egintza klinikoa da, Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalaren eta Ospitaleko Arretako profesionalaren artekoa, ebidentzia zientifikoaren eta klinikoaren arabera ezarritako markoen eta protokoloen baitan egiten dena.

Kontsulta presentziala nahiz ez presentziala eskatzeko erabakia osasuneko profesionalarengan hasi behar da beti.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00345. Galdera, Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Gobernuak Bidean ente instrumental deklaratzeari buruz 2023ko azaroaren 6ko Administrazio Kontseiluan aipatu ziren data aurreikusiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz

erantzun dakion, (11-24/PES-00345). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

BIDEAN Osasun Garraioko Enpresa Publikoaren erakunde instrumentalaren deklarazioak egikaritze prozesuan jarraitzen du, uztailaren 1ean PES-00301 galderan adierazi zenez. Horrek ez du eragozten Bidean enpresak lan egiten jarraitzea kronograman jasotakoaren arabera eta Nafarroako Parlamentuko osasuneko batzordean 2024ko ekainaren 5eko agertuan azaldu zenez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00346. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaletik kanpo egini-ko analisisiei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaletik kanpo egini-ko analisisiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du honako hau jakiteko: "Lehenago Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Analisi Klinikoa, Anatomia Patologikoa, Mikrobiologia eta Hematologiako labo-

rategietan egiten ziren analisisietatik zein egiten dira gure erkidegoko beste zentro pribatu batzuetan edo sare publikoko beste zentro batzuetan? Zenbat dira, eta zergatik ez dira egiten Tuterako Reina Sofía Ospitalean?" (11-24/PES-00346). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Laborategiko Zerbitzuan ez zaio analisi mota bat ere egiteari utzi; izan ere, zerbitzuetako zerrenda etengabe hazi da aipatutako lau espezialitateetan (Anlisi Klinikoa, Anatomia Patologikoa, Mikrobiologia eta Hematologia), eta bereziki Mikrobiologian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

**11-24/PES-00347. Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak bakarrik dauden adingabe atzerritarrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00347). Hona hemen galdera hori:

- Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar iritsi dira eta iritsiko dira behin betiko Nafarroara? Zer zentrok hartuko dituzte horiek? Bakarrik dauden zenbat adingabe atzerritar hartuko ditu zentro bakoitzak?

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroak bakarrik dauden 136 haur eta nerabe migratzaile ematen die arreta gaur egun gutxi gorabehera.

Urtean zehar bakarrik dauden 170 haur eta nerabe migratzaile iritsi dira gure komunitatera.

Gainera, Nafarroak hamabost adingabe migratzaile hartu behar ditu 2024an, uztailean Tenerifen izandako Hurrei buruzko Konferentzia Sektorialean adingabe migratzaileei erantzuteko adostutako planeko protokoloaren arabera.

Nafarroak konpromisoarekin bat hartu behar dituen hamabost horietatik bost neska iritsi dira jadanik Kanarietatik, eta Martzillako Behaketa eta Harrera egiteko Zentroan daude. Aurreikusten da beste bost mutil etorriko direla Ceutatik, eta beste bost Kanarietatik. Hasiera bateko aurreikuspena da guztiak pasatzea Martzillako Behaketa eta Harrera egiteko Zentrotik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafrañca

## **11-24/PES-00348. Galdera, Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00348). Hona hemen galdera hori:

• Zein da Nafarroako egoitzen hitzarmenaren egoera?

Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroan mendekotasuna dutenei arreta emateko zerbitzuen I. hitzarmen kolektiboa negoziatzeko batzordea 2021eko maiatzaren 8tik izan ditu bilerak, guztira 28, eta zkena irailaren 12an izan zen.

Bilera horretan patronalak uztailaren amaieran egindako proposamena eztabaidatu zen eta sindikatuek zehaztasun gehiago eskatu zuten ordainsarieriei lotutako kontzeptu batzuetan. Une honetan enpresen aldeak konpromisoa hartu du akordioaren funtsezko baldintzak berriz ere bidaltzeko sektorearen hitzarmen kolektiboa izateko 2025. urterako, eta ondoko urteetarako baldintzak negoziatzen jarraitzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00349. Galdera, Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroan desgaitasunaren alorrean dauden itxaron-zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00349). Hona hemen galdera hori:

- Hobetu al dira desgaitasunaren itxaron-zerrendak Nafarroan? Zein da desgaitasuna baloratzeko batez besteko itxaronaldia 2024ko abuztuaren?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

2024ko abuztuaren 31n, baloratzeko batez besteko itxaronaldia 13,96 hilabetekoa zen.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak konpromisoa hartu du erantzuteko erritmoa berreskuratzeko araudiak markatzen dituen sei hilabeteen barnean. Horretarako, arreta emateko itxaronaldiak murrizten laguntzeko neurriak ezarri ditugu.

Ekainean foru dekretu bat onetsi zen Desgaitasunaren Balorazio Zentroan mediku plaza bat sartzeko, bai eta terapeuta okupazionalaren plaza bat eta gizarte langilearen beste bat sartzeko ere. Plaza horiek azken urteotan egon den eskaera kopuruaren hazkundeari erantzuteko azken hilabeteotan sartu diren beste plaza batzuei gehitzen zaizkie.

Hori horrela, guztira, lan egin da behin betiko hiru plaza eta behin-behineko beste lau sartu eta ekipoa indartzeko. Hala ere, oporraldiak eta departamentuaren egituraren balorazio taldeak indartzeko sortu diren medikuntzako postuak betetzeko zailtasunek eragin dute oraingoz gai ez izatea desgaitasuna baloratu diezaietela eskatu duten pertsonen itxaron-zerrenda nabarmenki murrizteko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: M.<sup>a</sup> Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00350. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa EcheGARAY jaunak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren finantza-egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa EcheGARAY jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruz (11-24/PES-00350). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ez du modu fidagarrian jakin Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak ez ordaintze posiblerik duenik.

2. Nafarroako Gazteriaren Institutuaren zuzendari kudeatzailearen martxoaren 9ko 6E/2023 Ebazpen bidez, dirulaguntza izendun bat eman zen Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikularekin bat etorritz.

Halaber, kontuan hartuta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari ordaindutako zenbatekoa azkenean erakunde horrek justifikatutakoa baino handiagoa izan zela, ordaindutako dirulaguntzatik egikaritu ez zen zatia itzultzeko espediente hasi zen. Hori horrela, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren zuzendari kudeatzailearen otsailaren 12ko 8E/2024 Ebazpen bidez, erabaki zen itzultzeko espediente hori amaitzea, eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari agindu zitzaion 7.571,08 euro itzultzeko, gehi 243 euro berandutze interesetan.

Behin ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondoren, premiamendu bidez ordaintzeko beteazte aldia hasi zen. Nafarroako Foru Ogasunak ematen ahalko du horren egoeraren eta kasuko berandutze interesen berri.

3, 4 eta 5. Nafarroako Gazteriaren Institutuak ez dauka informaziorik Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak Nafarroako Foru Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta beste pertsona nahiz erakunde eta enpresa batzuekin izaten ahal dituen zorrei buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00351. Galdera, Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako NG funtsekin (SEM) finantzaturiko zenbait jarduketa bertan behera utzi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, idatziz

erantzuteko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari (11-24/PES-00351). Hona galdera eta Justizia Zuzendaritza Nagusiko Azpiegitura Judizialen Zerbitzuak horren harira ematen dion informazioa:

Justiziako Estatu Idazkaritzaren 2021eko maiatzaren 10eko, 2021eko abenduaren 13ko eta 2022ko ekainaren 14ko ebazpenen bidez, Justizia Administrazioaren Konferentzia Sektorialaren akordioak argitaratu ziren. Horien bidez, Susperitze eta Erresilientzia Mekanismoak 2021, 2022 eta 2023 urteetarako esleitutako kredituak autonomia erkidegoetarako banatzeko irizpideak formalizatu ziren, eta ondoriozko finantza konpromisoak formalizatu ziren.

Ebazpen horien arabera, hasieran Nafarroako Foru Komunitateari esleitzeko ziren funtsak honako hauek dira:

#### 2021-2023 ALDIAN NAFARROARENTZAT HASIERA BATEAN AURREIKUSITAKO FUNTSAK, GUZTIRA

2021eko maiatzaren 10ean NAFARROA RESi TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (1. BANAKETA):

	0. proiektua	517.896,00 €
--	--------------	--------------

2021eko abenduaren 13an NAFARROA RESi TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (2. BANAKETA):

	0. proiektua	100.702 €
	1 A proiektua: elkarreragingarritasuna	1.200.000,00 €
	2 proiektua: justizia datuari orientatuta	600.000,00 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.900.702,00 €</b>

2022ko ekainaren 14an NAFARROA RESi TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (3. BANAKETA):

	0. proiektua	1.322.821,00 €
	Herrialdea proiektuak	2.887.900,00 €
	Ekimen autonomikoko proiektuak	1.645.910 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>5.856.631,00 €</b>

	<b>GUZTIRA</b>	<b>8.275.229,00 €</b>
--	----------------	-----------------------

Xehapen horren arabera, Nafarroara transferitu beharreko zenbatekoa proiektuen arabera banatzea erabaki zen, koadro honetan adierazten den bezala:

HASIERAN ESLEITUTAKO FUNTSEN LABURPENA	AURREKONTUA HASIERAN AURREIKUSITAKOA
0. PROIEKTUA. OINARRIZKO AZPIEGITURA DIGITALA	1.941.419 €
1A PROIEKTUA. ELKARRERAGINGARRITASUNA	2.906.329 €
1B PROIEKTUA. SISTEMEN OPTIMIZAZIOA	248.474 €
2. PROIEKTUA. JUSTIZIA ORIENTATUA ETA DATUETAN OINARRITUA	600.000 €
4. PROIEKTUA. ZIBERSEGURTASUNA	43.313 €
5. PROIEKTUA. JUSTIZIA KARPETA	0 €
6. PROIEKTUA. HURRENTASUN DIGITALA	417.459 €
7. PROIEKTUA. TESTUALIZAZIOA	900.000 €
8. PROIEKTUA. MASC	536.627 €
9 PROIEKTUA. ERREGISTRO ZIBILA	681.608 €
10. PROIEKTUA. EZARPENA	0 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.275.229 €</b>

Ondoren, Justiziako Estatu Idazkaritzaren 2023ko martxoaren 27ko ebazpenaren bidez, 2023ko martxoaren 3an egindako Justizia Administrazioaren Konferentzia Sektorialaren akordioa argitaratu zen. Horren bidez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 2023. urterako esleitutako kredituaren ondoriozko banaketa aldatu zen autonomia erkidegoentzat, eta ondoriozko finantza konpromisoak formalizatu ziren.

Ebazpen horretan, besteak beste, "9. PROIEKTUA: erregistro zibila" egokitzea proposatu zen. Bertan hau adierazi zen hitzez hitz:

"2022ko urriaren 25ean Iruñean egindako Justizia Konferentzia Sektorialean DICIREGen hedapen berria onetsi zen. Testuinguru berri horretan, transferitutako eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako batzuek planteatu dute Justizia Ministerioak bere lurraldean Erregistro Zibileko liburuak digitalizatzeko ardura hartzea. Hala ere, beste batzuek nahiago izan dute digitalizazioa

bere horretan mantentzea eta hasita zeuden digitalizazio prozesuak amaitzea.

Hala, bada, aurreko sistema eta sistema berria denbora luzez elkarrekin funtzionatzen egotekoak ahalbidetzen du Justizia Ministerioak liburuak digitalizatzea autonomia erkidego batzuetan, eta beste batzuetan, berriz, haiek jarraitzea prozesuarekin.

Katalunian, Asturiasen, Kanarietan, Galizian eta Nafarroako Foru Erkidegoan Justizia Ministerioa arduratu da Erregistro Zibileko liburuak digitalizatzeari.

Aurrekoa kontuan hartuta, erabaki zen hasieran Nafarroarako onartuta zegoen zenbatekotik (8.275.229 euro), 2023an sartzekoa zen %10 (585.663 euro) ez transferitzea eta Justizia Ministerioak Nafarroako Erregistro Zibileko liburuak digitalizazioa lizitatzeke hartzea. Banaketa honela geratu zen:



## NAFARROARI ESLEITUTAKO FUNTSAK, GUZTIRA (2021-2023)

NAFARROARI TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (1. BANAKETA)	517.896,00 €
NAFARROARI TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (2. BANAKETA)	1.900.702,00 €
NAFARROARI TRANSFERITUTAKO ZENBATEKOA (2022-2023, 3. BANAKETA)	5.270.968,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.689.566,00 €</b>

Bestalde, proiektuak honela banatu ziren:

ESLEITUTAKO FUNTSEN LABURPENA ALDATUTA	AURREKONTUA AURREIKUSITAKOA ALDATUTA
0 PROIEKTUA. OINARRIZKO AZPIEGITURA DIGITALA	1.941.419 €
1A PROIEKTUA. ELKARERAGINGARRITASUNA	2.906.329 €
1B PROIEKTUA. SISTEMEN OPTIMIZAZIOA	248.474 €
2. PROIEKTUA. JUSTIZIA ORIENTATUA ETA DATUETAN OINARRITUA	600.000 €
4. PROIEKTUA. ZIBERSEGURTASUNA	43.313 €
5. PROIEKTUA. JUSTIZIA KARPETA	0 €
6. PROIEKTUA. HURRENTASUN DIGITALA	417.459 €
7. PROIEKTUA. TESTUALIZAZIOA	900.000 €
8. PROIEKTUA. MASC	536.627 €
9. PROIEKTUA. ERREGISTRO ZIBILA	95.945 €
10. PROIEKTUA. EZARPENA	0 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.689.566 €</b>

Nafarroako Gobernuaren 2022ko otsailaren 16ko akordioaren bidez onetsitako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako proiektuen kudeaketa eta jarraipen arauak betez, uspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektu bakoitzerako Kudeaketa Plan bat onetsi zen.

Kontratazio espedienteak izapidetzean, 1A Proiektuaren Kudeaketa Plana aldatu behar zela ikusi zen, premia berriak sortu zirelako, Justizia Ministerioak garatu beharreko elkarreragingarritasun nodo komuna zehaztu ez zelako (gai hori

beharrezkoa zen proiektatutako jarduketa batzuetarako) eta beste proiektu batzuetatik eratorritako gerakinak zeudelako, dagoeneko egindako esleipenetan edo kontratazioetan baja eman zelako. Elkarreragingarritasuna justizian onetsita, jarduketa berrietan ezartzeko.

Aipatutako Justizia Administrazioaren Konferentzia Sektorialaren akordioen barruan, adierazi behar da administrazio betearazleak lortutako gerakinak, lizitazioen kudeaketa eraginkorragatik, helburuak aldeztetik betetzeagatik edo urteko plangintzan

izandako arazoengatik, Justizia Administrazioaren Konferentzia Sektorialaren akordioaren bidez onetsitako esparruan dagoen lehentasunezko beste edozein proiektu gauzatzeko erabil daitezkeela. Beraz, proiektu bakoitzari hasieran esleitutako zenbatekoa handitu egin daiteke, baldin eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Funtsetan jasotako edozein proiekturen gerakinetako bat proiektu horretara bideratzea erabakitzen bada.

Aipatzekoa da Nafarroak garatutako proiektu bakoitza (0 proiektua, 1A proiektua, 1B proiektua, 2 proiektua eta abar), eta dagokion Kudeaketa Planean definitua, NAFARROA izeneko proiektu globalaren zati bat dela benetan, SEEPen terminologiako "azpi-proiektu" bakarra da, eta, beraz, hasierako banaketan aurreikusitako zenbatekoak beste proiektu batzuetara mugitu daitezke, baldin eta ez bada gainditzen globalaren zenbateko osoa.

1A proiektuaren kudeaketa planaren 2. aldaketan jasota dagoenez: Justiziako zuzendari nagusiaren abuztuaren 4ko 32E/2023 Ebazpenaren bidez onetsitako justizin elkareragingarritasuna, kontratuen esleipenetan izandako baje onoriozko funts guztiak, bai eta azkenean gauzatu ez ziren beste proiektu batzuetako gerakinetatik eratorritakoak ere, Kudeaketa Prozesaleko Sistemaren garapen ebolutibo berriak kontratatzeke erabili dira, gure Kudeaketa Prozesaleko Avantiu Sistema beste sistema batzuekin edo Justizia Ministerioaren nodo komunarekin elkareragingarria izan dadin.

Azaldutako aldaketa guztiak Konferentzia Sektorialetan zein Justizia Ministerioan baimendu ziren, eta ondoriozko zenbatekoak, txosten hau egin zen datan, honela geratu ziren:

ESLEITUTAKO FUNTSEN LABURPENA	ESLEITUTAKO AZKEN AURREKONTUA
0 PROIEKTUA. OINARRIZKO AZPIEGITURA DIGITALA	1.867.056 €
1A PROIEKTUA. ELKARERAGINGARRITASUNA	5.128.542 €
1B PROIEKTUA. SISTEMEN OPTIMIZAZIOA	240.639 €
2 PROIEKTUA. JUSTIZIA ORIENTATUA ETA DATUETAN OINARRITUA	0 €
4. PROIEKTUA. ZIBERSEGURTASUNA	18.148 €
5. PROIEKTUA. JUSTIZIA KARPETA	0 €
6. PROIEKTUA. HURRENTASUN DIGITALA	92.101 €
7. PROIEKTUA. TESTUALIZAZIOA	0 €
8. PROIEKTUA. MASC	205.268 €
9. PROIEKTUA. ERREGISTRO ZIBILA	0 €
10. PROIEKTUA. EZARPENA	0 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.551.753 €</b>

Nahiz eta Nafarroako Foru Komunitateari esleitutako kredituaren behin betiko banaketa tauletan 0 zenbatekoarekin agertzen diren proiektuak egon, ez du esan nahi jarduketa horiek ezabatu direnik, baizik eta beste proiektu eta Kudeaketa Plan baten izendapenarekin sartu direla, beste jarduketa batzuk kontratatzeko.

Hala, hau da 2. PROIEKTUarentzat aurreikusitako hasierako zenbatekoa: justizia orientatua eta datuetan oinarritutakoa berrerabili da Kudeaketa Prozesaleko Avantius Sistemaren bilakaerarako.

Hasieran hau zen 2. proiektuaren jarduketa eremua: Justizia orientatua eta datuen oinarritutakoa, hau zen:

Next proiektuak, non Justizia Ministerioak baimena eman zigun haien zenbatekoa berrerabiltzeko Avantiusen bilakaerarako gerakin gisa:	Zenbatekoa	Kontratatzaile	Ordezko ebolutiboa	Zenbatekoa
01 konexioa AVT / LAGO DATOS	300.000,00 €	Nafarroa	Automatizatuta dagoen Estatistika Judiziala eta Aginte koadroak profilaren arabera AVANTIUSen	600.000,00 €
02 aginte koadroak jartzea	300.000,00 €	Nafarroa	jurisdikzio zibil eta sozialetan	

Era berean, 7. PROIEKTUarentzat (testualizazioa) aurreikusitako zenbatekoa Kudeaketa Prozesaleko Avantius Sistemaren bilakaerarako berrerabili da.

Hasieran 7. proiektuaren (testualizazioa) jarduketa eremua hau zen:

– Dokumentuak anonimizatzea

– "Avantius" kudeaketa prozesaleko sistemaren datu-lakurako konexioa (integrazioa).

– "Avantius" kudeaketa prozesaleko sistemaren integrazioa nodo partekatuan: Aginte koadroak.

Azkenean kontratatu dena hau da:

– Estatistika judizial automatizatua eta aginte koadroak profilaren arabera, Zibileko eta Sozialeko jurisdikzioetan, BJKNren estatistika aldizkari-kiko elkarreragingarritasuna ahalbidetzen duena, 1A PROIEKTUaren: (ELKARRERAGINGARRITASUNA) kargura:

– Dokumentuen sailkapena

– Bilatzaile adimenduna garatzea 360

Azkenean kontratatu dena hau da:

– Izapidetze judiziala Avantiusen, adimen artifizialak gidatuta, 1A PROIEKTUaren (ELKARRERAGINGARRITASUNA) kargura:

Next proiektuak, non Justizia Ministerioak baimena ematen digun haien zenbatekoa berrerabiltzeko Avantiusen bilakaerarako gerakin gisa. DAGOEN EKO FINKATU DITUGU ORDEZKO EBOLUTIBOAK:	Zenbatekoa	Kontratatzaile	Ordezko ebolutiboa	Zenbatekoa
03 ADIMEN ARTIFIZIALA ANONIMIZAZIOA	300.000,00 €	Nafarroa	Izapidetze judiziala AVANTIUSen, adimen artifizialak gidatuta	900.000,00 €
04 ADIMEN ARTIFIZIALA - DOKUMENTUEN SAILKAPENA	300.000,00 €	Nafarroa		
05 ADIMEN ARTIFIZIALA BILATZAILE ADIMENDUNA 360	300.000,00 €	Nafarroa		

Gainera, 0 proiektuaren kargurako bisten grabazioen testualizazioa sartu da, Justizia Ministerioaren 0 PROIEKTUAREN (OINARRIZKO AZPIEGITURA DIGITALA) kargurako testualizazio sistema ezartzeko beharrezkoak diren zerbitzariak eta softwarea erosi baitira.

9. PROIEKTUARI dagokionez (Erregistro Zibila), Justizia Ministeriotik, 2023an hirugarren banaketan Nafarroari ez transferitzea onetsi zen zenbatekoaren % 10ari dagozkion 585.663 euroekin, Nafarroako Erregistro Zibilen 1826 liburuki digitalizatu dira:

– 1950etik gaur egunera arteko jaiotza liburuak eta ezkontza liburuak, eta 1935etik gaur egunera

arteko heriotza liburuak, barruti judizialeko buru ez diren udalerrri guztietako erregistro zibiletakoak.

– 1935etik 1950era bitarteko heriotza liburuak, barruti judizial guztietako buruetakoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.<sup>a</sup> Amparo López Antelo